

# Artearen arloko produkzio zientifikoa euskaraz XX. mendearen amaieran eta XXI.aren hasieran. *UEUren UZTARO aldizkariaren ekarpena*

Haizea Barcenilla García\* eta Isusko Vivas Ziarrusta\*\*  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). \*Letren Fakultatea, Arte eta Musikaren Historia Saila \*\*Arte Ederren Fakultatea, Eskultura Saila

Artikulu honen zioa arte garaikidean sortutako euskarazko bibliografiaren ikuspegi orokorra ematea da. Horretarako, aldizkari akademikoak, monografia espezializatuak eta arte-zentro eta museoek ekoizitako katalogoak eta bestelako argitalpenak aztertuko dira, irakurleari iturri eta baliabideak eskaintzeko asmoz. Horrekin batera, halako euskarazko produkzioak pairatzen dituen gabeziak eta arazoak aztertu eta konponbideak proposatzen saiatuko gara. Bigarren partean, konkretuki UEUren *Uztaro* aldizkarian (Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria), arte-arloko artikuluek izan duten oihartzuna aztertuko da.

GAKO-HITZAK: MArte garaikidea · Produkzio zientifikoa · Euskarazko bibliografia · Ikerlan akademikoak Erakundeak · Argitalpenak · Aldizkari (zientifikoak) · *Uztaro*.

## Scientific production in the field of art in Euskara during the end of the XX century and the beginning of the XXI. UEU's UZTARO journal's contribution

This article aims at offering a general view of the bibliography created in Basque around contemporary art. It analyzes academic journals and publications, specialized books and the broad production of catalogues and publications by art centres and museums, in order to provide for a serious list of sources and resources for researchers. It also concentrates in problems and lacks that appear in this production of knowledge, and it tries to propose some solutions for them. In the second part, we study mainly the echo they have had some articles of the area of the art in the journal *Uztaro* (Humanities and Social Sciences).

KEY WORDS: Contemporary art · Scientific production · Basque bibliography · Academic research · Institutions · Publications · (Scientific) Journals · *Uztaro*.

*Jasotze data:* 2017-01-23      *Onartze data:* 2017-02-10

## Sarrera

Beti da ederra lagun baten urteurrena ospatzea, eta *Uztaroren* 100. zenbakia artez betetzea izan daiteke oparirik egokiena. Izan ere, *Uztarok* bere ibilbidean sustatu duen euskarazko produkzio akademikoa eta bi egileok artearen esparruan dugun esperientzia uztartuz, jakintzaren sorkuntzari lagundu ahalko dion gainbegiratu bibliografikoa osatzea izango da artikulua honen helburu nagusia. Hain zuzen, arte garaikideari egingo diogu so, bai ekoizpenaz mintzo diren artisten idatziei, baita ikuspegi historiografiko edo kritiko batetik sortutako testuei ere, batez ere artearen historialari eta teorialarien eskutik. Jomuga horren aurrean, ekoizpen zientifiko desberdinak aztertzeke asmoz, ikuspegi orokorra eskainiko da, oparotasunez argitaratu duten kasuen irudi zabal bat emanez, zeinak lehen erreferentzia gisa balio baitezake. Azken atalean, ordea, *Uztaron* argitaratutako artikuluen aurkezpen zehatzagoa eskainiko da, aldizkariak alderdi honetan betetako funtzioa aztertzeke zioaz.

### 1. Unibertsitatearen inguruko ekoizpen akademikoa

#### 1.1. Doktorego-tesiak, konkista bihurriak

Hasteko, ekoizpen akademikoari buruz ari garenez, horren xede den unibertsitateari egin beharko diogu so, eta esparru horretan, lehen ikerketen emaitza diren doktorego-tesiei. Eta ereduak aztertzeke orduan, euskarazko arteari buruzko ekoizpenak topatzen dituen laguntzak zein mugak eta arazoak begiztatzea beharrezkotzat jotzen dugu, horiek direlako eredu mota batzuen ugaritasun edo murriztasun erlatiboaren errudun. Kontuan izanda Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretako zein Artearen Historiako ikasketak euskaraz eskaintzen direla orain hogeita bat urte inguru, bitxia suertatzen da euskaraz idatzitako tesien kopuru murrizta. Hain zuzen, EHUko Arte Ederren Fakultateko on-line tesien bilduma-katalogoa kontsultatuz eta ADDI gordailuarekin osatuz, hamar dira soilik hizkuntza horretan aurkeztutakoak.

Hamar izenburu horien artean, bat zaharberritzearen alorrekoa da, Enara Artetxek 2009an defendatutako *Argazki koloreztatuak zaharberritzeke paperean erabiltzen diren zenbait kontserbazio-zaharberritze tratamenduren egokitasunaren azterketa* (testu honen laugarren atalean aipatzen dena); beste bat, Artearen Historiakoa, Haizea Barcenillak egindako *Komisariotza eta berdintze prozesuak*, 2014. urtean aurkeztutakoa; eta hirugarren bat, arte-ekoizpenak aztertzen baditu ere, Antropologiaren ikuspegitik idatzia dago, hain zuzen, Maider Zilbetik 2016an defendatutako *Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturallean: arte-instituzio garaikideetako praktika. Arteleku Zentroa eta Montehermoso Kulturunea (1997-2010)*. Azken bi izenburuek praktika garaikideen erakusketa eta sorkuntza hizpide izanik ere, horien aurkezpen, diskurto-erakitze eta ezagutarazte-prozesuan finkatzen dute begirada, komisario edota instituzioen ikuspegiari garrantzia emanez.

Beraz, zazpi lirakeke arte-ekoizpenari zuzenean dedikatutako euskarazko doktorego-tesiak Arte Ederren Fakultateko on-line gordailuan. Horietan zaharrenak Jesus Melendezek aurkeztutako *Irudi grafikoak, pintura materia eta material legez*

*(bi pintura eragile)* eta Jose Angel Lasa Garikanoren *Izadiaren arteak, arteari izaera* izan ziren, biak 1996koak. Hamar urte baino gehiago itxaron beharko da hurrengoa topatzeko, Amaia Zurbanok 2007an defendatutako *Artea artista eta traumaren arteko bitartekari gisa, psikoanalitik artera eginiko hurbilketak eta Louise Bourgeois-en eskultura*. Ondoren, Usoa Fullaondoren *Zoriaren esku hartzea sormen prozesu ludikoetan eta bere egiaztapena pintura praktikan* (2011, testu honetako laugarren atalean aipatua), Jon Mantzisorren *Praktika kontzeptual eta performatiboak free improvisation eszenan* (2013), Izibene Oñederraren *Emakumezko eta gizonezko heroiak eta euren ekintza heroikoak zenbait arte irudikapen garaikideetan: mota eta egoeren ezaugarria* (2015), eta, azkenik, Olaia Mirandaren *Irudikapen topokritikoak arte garaikidean: inguratzen gaituen guzti honi zentzua hartu eta ematearen arte epistemologiaz* (2016) aurkituko genituzke.

Ikusgarria denez, tratatutako gaiak oso bestelakoak dira lan guztietan, eta kopuru txikia izan arren, esparru desberdinetarako erreferentziak eskain ditzaketela azpimarra daiteke. Zaharberitzea, komisariotza, instituzio-praktikak, feminismoa, psikoanalisi, musika, performatibotasuna edota topografia aurki ditzakegu lan horietan, eta, alde horretatik, aberastasuna ekarri dute euskarazko ezagutzaren ekoizpenera. Ezin dugu ukatu, ordea, kopuru aldetik motza dirudiela zerrendak, batez ere Arte Ederretako zein Artearen Historiako ikasle kopurua eta bi espezializazio horietan euskaraz irakasten duten adituen kopurua gogoan.

Aipatzekoa da, orobat, Hego Euskal Herriko beste unibertsitateetan (Deustu, Mondragon eta Nafarroako unibertsitateetan) ez dela arteari buruzko euskarazko tesirik topatu. Bereziki deigarria kontsidera dezakegu hori Deustuko Unibertsitatearen kasuan, zeren euskal arte garaikidean adituak diren irakasle euskaldunak zein arlo horretako irakaskuntza espezializatua eskaini baititu.

Zergatik dira hain gutxi euskaraz idatzitako tesiak? Zeintzuk dira euskaraz ikerketa egin nahi dutenek topatzen dituzten trabak? Hasteko, esan beharra dago EHUK euskarazko tesiak egiteko laguntzak eskaintzen dituen arren, gaztelaniaz egitea baino lan luzeagoa eta handiagoa eskatzen duela. Aurreko urteetan, hainbat ikertzaile euskaldun tesia gaztelaniaz egitera behartuta sentitu ziren euskaraz egiten zuen zuzendaririk ez egoteagatik. Egun ere, norbaiten gaiaren aditua euskalduna ez bada, unibertsitateak ez du inolako itzulpen-zerbitzurik eskaintzen prozesu horretan laguntzeko, eta doktoregaiak berak jatorrizko testua aurrera doan heinean itzultzearen lana hartu behar du, zuzendariarekin komentatu ahal izateko. Urteen poderioz, errazagoa da edozein gairako zuzendari euskaldun bat topatzea, baina aurreko urteetan zuzendari euskaldunen gabeziak ikertzaile bat baino gehiago atzera bota du.

Bigarrenik, tesia euskaraz idatzia egon arren, zaila suerta daiteke legez EHUtik kanpoko Espainiako unibertsitateetako adituekin osatu behar den tribunalean gehiengo euskalduna ziurtatzea. Horrek esan nahi du euskaraz idatzitako tesiak itzuli behar direla defendatuak izan ahal izateko. EHUK itzulpen horretarako diru-laguntza eskaintzen duen arren, ez du derrigorrez itzultzailea eskaintzen, eta maiz doktoregaiaren esku geratzen da itzultzaile hori bilatu eta haren lana koordinatzea. Itzulpenaren dirua ere aurreratatu behar du, diru-laguntza aurkezpena burutua egon

arte ez baita ordaintzen. Hortaz, ikerketaren ideia erromantiko eta bokaziozkoaren atzean ezkututzen den errealitate pragmatikoari so egiten badiogu, tesia euskaraz idazteak lan gehiago, aurkezpenean atzerapena eta aurreratu beharreko dirukopurua eskatzen du. Kontuan izanda doktoregaiak tesia aurkezteko izaten duten premia, bai beka bukatzen zaielako, bai bekarik izan gabe lanean dabiltzalako, badira arazoak aurreikusiz gaztelaniaz egitea hobesten duten ikertzaile euskaldunak.

Sistema honek eragiten dituen kalteei azken urteetako logika akademiko konpetitiboak inposatutako ikerketa-merezimenduen puntuatze-sistema gehitzen zaie, globalizazioak areagotuta gainera. Izan ere, lanpostu bat lortzeko bidean, aldizkari indexatuetan argitaratutako artikuluek eskaintzen dute puntuaziorik altuena; horrekin batera, beste ikertzaileen aipuek ere balioa dute. Euskarazko arte-argitalpen akademiko indexatuak ez dira asko eta, batez ere, gai zehatz batzuk kenduta, aipuek jasotzeko aukera txikia eskaintzen dute. Hain zuzen, euskarazko ikerketa akademikoa ugaria ez izateak puntuatze-sistema horretan leku txarrean uzten du, interes handiko ekoizpenak egon arren, nazioarteko kalitatearen irizpideetan ikusezin geratzen baita. Horrela, ez da bakarrik gaztelaniaren aurka lehiatu behar; ingelesaren «nazioarteko hizkuntza» izaera ere hasi da euskarazko artearen inguruko ekoizpen akademikoa kaltetzen.

## 1.2. EHUren aldizkari akademikoak, globalizazioaren menpeko

Agerikoa da faktore hori Arte Ederren Fakultateak argitaratzen duen *AusArt* eta Artearen eta Musikaren Historia Sailak koordinatzen duen *Ars Bilduma* aldizkarietan. *AusArt* aldizkariaren kasuan, 2013an argitaratutako lehen zenbakian 35 ekarpen gehitu ziren; horietatik bakarra, Garbiñe Pedroso Conejerok eta Inhar Saenz de Santamariak idatzitako «Zarautz loraldi berrian» da euskarazkoa. Zenbaki berean bi dira ingelesez argitaratutako artikuluek, ordea. Hurrengo euskarazko artikulua 2014ko 2. liburukian, 1. zenbakian topatzen dugu, Lauren Etxepare Iginiz, Maialen Sagarna Aranburu, Iñigo Lizundia Uranga eta Eneko Jokin Uranga Santamariak aurkeztutako «Unité-ak eta hibridoak: 3 saiakera luzetarako bizitexeen gainean». Bitxiki, zenbaki horretako 26 artikuluetatik bada bat ingelesez eta bi portugesez, alegia, euskaraz baino gehiago. 2015eko 3. liburukiko lehen zenbakian, dantzari dedikatutakoa, Eneko Balerdi Aizmendiren «Hezkuntza graduako ikasleen autokontzeptu artistikoa / Education degree students' artistic self-concept» artikulua dugu, hots, hezkuntzan zentratutako ikerketa. Kasu horretan, zenbakiko beste 18 artikuluek gaztelaniaz idatziak dira. Azkenik, 2015eko 3. liburukiko 2. zenbakian bi dira euskarazko artikuluek: Jon Mantzisorren «Eskriba Eseria: Entzute aktiboa musika inprobisatu librean» eta Ion Andoni Del Amo Castro eta Arkaitz Letamendia Onzainen «Zarata da garaipena? Kapitalismo bizkortua eta bere soinu banda(k)». Hala ere, globalizaziorako joera eta horrek euskarazko produkzio akademikoan duen eragin txarra gehien nabari diren zenbakia 2016an argitaratutako bakarra da: 21 artikulutik, 4 dira ingelesez, euskarazko bat ere ez dagoen bitartean.

Are larriagoa da Artearen eta Musikaren Historia Sailak argitaratzen duen *Ars Bilduma* aldizkariaren kasua. Zenbakiak laburragoak dira, zortzi edo hamar artikulurekin bakoitzean. Hala ere, argitaratutako zazpi zenbakietan, euskarazko

artikulu bakarra dago, Ana Isabel Ugalde Gorostizak eta Arantza Otaduy Tristánek barrokoko aldare bati buruz idatzitakoa, hain zuzen ere. Aldizkari horren kasuan, ordea, gaztelaniazkoak dira beste artikulu guztiak, ingelesezko ekarpenik gabe.

Beraz, unibertsitateko akademiak arte garaikidearen inguruan ekoiztako euskarazko materiala kalitatezkoa baina labur xamarra dela esan dezakegu. Joera globalizatzaileek eta erreferentzien sistemak hainbat euskal egile bultzatzen dituzte gaztelaniaz edo ingelesez idaztera. Euskarazko artikuluetan maiz bertako artearen lanketa topatzen dugu, elkarrizketa bat hasteko aukera gehiago ematen baitute bertatik bertako gaiek beste esparru geografiko edo gai zabalagoei aipamena egiten dietenek baino.

Geldotasun horri aurre egiteko bide bat, hurrengo ataletan aplikatua ikusiko duguna, itzulpena litzateke. Unibertsitateak eta bestelako instituzio publikoek euskaraz sortzen den material akademikoa ingelesera itzultzeko esfortzua egingo balute, ziurrenik askoz gehiago izango liriteke geure hizkuntzan idatziko luketenak, haien lanaren nazioarteratzea ziurtatuta geratuko bailitzateke. Esan liteke euskaraz idazten duten askok militantzia-zentzuaz egiten dutela, euskarazko jakintza-ekoizpena bultzatzeko asmoz, eta, sarri, beste eragile batzuk direla-eta (erreferentziak, puntuatzeak...) euskaraz idatzi nahiko balute ere, beste hizkuntza batzuen aldeko hautua egin behar dutela. Une honetan, esparru espezializatu honetan garaitzen ari den izaera globalizatzaile horren kontrako baliabide bakarra, beraz, itzulpena dela dirudi, euskaraz egindako bibliografia geure mugetatik sistema globalizatura ateratzea ahalbidetzeko.

### 1.3. EHUren Argitalpen Zerbitzuaren monografiak

Azkenik, EHUren Argitalpen Zerbitzuan arteari buruz agertzen diren izenburuen errebaso labur bat egin nahiko genuke, eta berriz ere gutxi direla ikusiko dugu. Gehienak beste hizkuntzetatik egindako itzulpenak dira, euskarazko baliabideak zabaltzeko, eta beharbada asmo horrekin ere, askok eskuliburu edo hiztegi izaera dute. Horren adibide, Jose María Faerna García-Bermejo eta Adolfo Gómez Cediilloren *Arteari buruzko oinarrizko kontzeptuak* (2015), Rosina Lajo Pérez eta José Surroca Coreten *Artearen lexikoa* (2010) edo Vicente Aguilera Cerníren *Arte garaikidearen hiztegia* (1995). Eskuliburuaren atalean, Pedro Guasch Matutesen *Geometri irudigintza eta perspektibari buruzko ikasgaiak* (1993), Eduardo Herrera Fernández eta Leire Fernández Iñurritegiren *Prozesu sortzailea kartelen diseinu grafikoan* (2013) edota Pablo Lekue Rodríguez eta Amaia Andrieu Sanzen *Lehen hezkuntzarako ikus-hezkuntza. Arte eta ikus-kulturaren hezkuntza irakasgairako ikasmaterialak* (2014) topa ditzakegu. Bestela, artearen eta irudiaren teoria izan dira itzulpenen helburu nagusiak: Filiberto Mennaren *Arte modernoaren ildo analitikoak. Figurak eta ikonoak* (1999), Jacques Aumonten *Irudia* (2005) eta José Jiménezén *Artearen teoria* (2010) itzuli eta argitaratu dira azken urteotan.

Bertoko ikertzaile batek euskaraz egindako lan bakarra topa daiteke artearen katalogoan, hots, Ismael Manterolaren *Raemaekersen marrazkiak. Britaniar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran* (2012). Jatorrizko

euskarazko bertsiotik abiatuta, gaztelaniara eta ingelesera itzuli zen liburua, eta opa dezagun etorkizuneko beste izenburu batzuen eredia izango dela.

## **2. Unibertsitatetik kanpoko aldizkari espezializatuak eta monografiak**

Hurrengo atal honetan, unibertsitatetik kanpo argitaratzen diren beste aldizkari batzuetan finkatuko dugu geure arreta lehenengoz, azken partean, aurretik egin dugun bezala, argitaletxeek noizean behin arteari eskainitako espazioa ere kontuan hartuz, monografia batzuen aipamena eginez, halaber.

### **2.1. *Jakin* aldizkaria. Ezusteko debateak eta kultur politikak**

Hasteko, euskara soilean argitaratzen den gizarte eta kulturako erreferentzia bati begiratu behar diogu, hots, *Jakin* aldizkariari. Haren gai nagusia artea ez izan arren, XX. mendeko 50eko hamarkadatik noizean behin artikuluren bat argitaratu du arteari lotuta. 90eko hamarkada bereziki emankorra izan zen zentzu horretan, eta hortik aurrera egingo diogu kasu. 1990ean bertan Amaia Iturbidek «Eduardo Txillida euskal eskultorearen lanari hurbiltze apala» idatzi zuen; 1992an, Josu Landa «Euskal kultura» artikuluan arteaz ere mintzo zen.

1993an eztabaida interesgarria piztu zen aldizkarian Guggenheim museoaren inguruan. 77/78. zenbakian bi artikulua idatzi ziren Guggenheim museoari buruz, une hartan eman baitzen ezagutzera amerikarrekin itxitako akordioa. Lehenak, Xabier Cilleroren esku eta «Guggenheim museoaren argitzalak» izenez, Guggenheimen ikuspegi orokorra eta akordioaz ezaguna zena azaltzeko ardura zuen, eta nahiko neutroa izanik, kutsu positibo samarra sumatzen zitzaion. Bigarren artikulua Joseba Zulaikaren esku egon zen, eta «Gu gu Guggenheim. Eromenaren laudoriotan» izan zuen izena. Proiektuaren inguruko kritika sakona zen hura. Kritika horrek izan zuen bere erantzuna, Mikel Etxebarriak hurrengo zenbakian argitaratutakoa, «Ezjakintasunean oinarritutako kritikak» izenpean, Zulaikaren argudioak puntuz puntu erantzuten zituelarik. Hala ere, eztabaida ez zen bertan amaitu, hurrengo urtean berriz ere Zulaikak ihardetsi zuelako, bere kasuan artikulua garatu eta dokumentatu baten bidez, «Artearen amodioagatik: Guggenheim eta euskaldunak». Eztabaida hori azpimarratu nahiko genuke Zulaika izan delako hurrengo urteotan ere Guggenheimen politika globalen eta kultur politikaren inguruan gehien idatzi duen ikertzailea, gaztelaniaz eta ingelesez batez ere, eta, une horretan, argudiorik eta eztabaidarik informatuenak euskarazko aldizkari batean gauzatu zirelako.

Urte haietan arteari buruzko eztabaidak espazio handia zuen gizartean argiki, orduan ere gehitu zelako «Egunen gurgpilean» sailaren barnean arteari buruzko atala. Idatzi horiek ez ditugu beharbada ekoizpen akademiko zorrotza kontsideratu behar, entseguren eta erreportajearen arteko izaera hartzen baitute, baina unean uneko arte-ekoizpenen berri ematen dutenez, baliabide interesgarria izan daitezke ikerketarako. 1992an Jesus Gil Massak hartu zuen atal horren ardura; 1993an Hasier Etxebarriak hartu zuen erreleboa, eta, 1994an, Joxean Muñozek. Urte horretan ematen da ere arteari buruzko azken artikulua espezializatua epe luzexka batean, Mari Jose Aranbururen «Euskal arteari buruzko bibliografia» lanarekin. 1995etik

aurrera, aldiz, artearen atala desagertu zen «Egunen gurpilean» sailetik, hala nola arteko artikulua aldizkariaren gorputzetik.

Artearekiko harremana 2008an berreskuratu zen, berriz ere «Egunen gurpilean» sailean, orduan Xabier Gantzarainen esku. Hark idatzi zituen atal horretan bederatzik artikulua urte hartan zein hurrengoan. 2010ean Haizea Barcenillak hartu zuen lan hori eta 17 idatzi ekoitzi zituen 2013ra arte. 2014tik aurrera artearen atal hori berriz ere desagertu zen, baina arteari begirada zehatzagoa eskaini zaio pare bat zenbakitan: 2016ko 213. zenbakian Durangoko «Gogoetaren plazan» kultur sortzaileek kulturaren inguruan egindako ekarpenak elkartu ziren, Iñigo Astiz eta Miren Rubioren artikuluen bitartez, «Kulturagintza norabidearen atakan. Durangoko Azokako “Gogoetaren plazan” igarritako kultur estrategia bateratu baten premiaz eta ikusgarritasunaren erronkaz», bertan parte hartutako artista eta arte-eragileen kezka agerian daude, besteak beste. Ondoren, 2016an ere baina 215-216. zenbakian, «Kultura autodeterminatuko balitz» lelopean, artearekin lotutako hainbat artikulua gehitu ziren, UEUrekin elkarlanean aldizkariak antolatutako udako ikastaroari lotuta. Batetik, Hedoi Etxarteren «Bi gogoeta politikatik arteari buruz» testu teorikoagoa; Haizea Barcenillaren «Kultur politikak: paradigma aldaketa?» diagnostia; eta bi zentzoren aurkezpena, «Tabakalera» Ane Rodriguezen esku, eta «Okela Sormen Lantegia» Nora Aurrekoetxea, Izaro Leregi eta Irati Urrestarazuk idatzia. Hala ere, ikus dezakegunez, azken ekarpen horiek kultur politikaz eta ikuspegi sozialaz aritzen dira hein handi batean, eta ez horrenbeste ekoizpen artistiko zehatzez.

## 2.2. Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak

Artean espezializatutako beste aldizkari batzuk ditugu: historiaren ikuspegitik eginikoa dugu Eusko Ikaskuntzak argitaratutako *Ondare* aldizkaria, 1981 eta 2012 urteen artean ateratakoa. Bertan garai desberdinei zegozkien irakurketa historiko-artistikoak agertzen ziren, haien artean arte garaikideari zuzendutakoak ere. Euskarazko artikuluei dagokienez, ordea, ezin da esan aldizkari horrek euskarazko arte garaikidea asko bultzatu zuenik: bakarra dago bere historia osoan, 1985ekoa, Edorta Kortadiren hitzaldi baten transkripzioa hain zuzen, «Lizardiren omenez, Eduardo Txillidaren eskultura eta poesia» izenarekin.

Etxe berak sortutako beste aldizkari batean, *RIE*Ven, topatzen dugu euskarazko beste artikulua bat: José Javier Fernández Altunak eginiko «Arte garaikidea eta krisialdiaren arteko harremanak: ekoizpenetik hedapenera», 2014an argitaratua, 59. liburukiko 1. zenbakian. Hori da aldizkari horretan azken urteetan arte garaikideari euskaraz dedikatutako artikulua bakarra, baina esan beharra dago argitalpenaren gai-aniztasuna kontuan hartuz, poztekoa dela gaiarekin lotutako artikulua bakarra euskarazkoa izatea. 2017rako Ismael Manterola eta Haizea Barcenillaren esku euskal arte-kritikaren berrikuspenera ere bada abian, hori ere euskaraz.

## 2.3. Monografiak han-hemenka

Atal honi bukaera emateko, zenbait argitaletzek bultzaturiko monografiak aurkeztu nahiko genituzke, asko izan gabe, ekarpen interesgarria egin diotelako

ikerketa-esparruari. Zenbait etxek tarteka arteari dedikatutako libururen bat edo beste argitaratzen dute; horren kasua dugu Elkarren Nere Lujanbiok 2008an idatzitako *Jorge Oteiza. Jenio hutsa* biografia, esaterako, edo Txemi Valdecantosoren *Zer ote da arte garaikidea?* (2014). Atera berri dago Ismael Manterolak egindako euskal artearen irakurketa, *Maite ditut maite. Transmisioa XX. mendeko Euskal Herriko artean* izenpean eta Edo! argitaletxearen esku. Eta UEUK Maider Zilbetiren aurretik aipaturiko tesiaren argitalpena egin du 2016an. Bestetik, ez ditugu ahaztu behar artisten edo arte-pentsalarien jatorrizko liburuen hainbat itzulpen: Vassily Kandinskyren *Elementu piktorikoei ekarpena: izpiritualtasunaz artean. Puntua eta lerroa planoan*, Gaiak Argitaletxearen eskutik (1996) edo Meettokek euskaratutako Lev Tolstoiren *Zer da artea?* (2013).

2013tik agente berri bat gehitu zaio euskaraz landutako artearen esparruan oso oparoa ez den argitalpenaren munduari: Gasteiz eta Buenos Airesen kokalekua duen Sans Soleil etxeak ikusizko kulturari buruzko liburuak argitaratu ditu, horien artean Txinpartak bilduma euskaraz. Lau izen daude osatuko dela espero dugun ekimen interesgarri horretan, lehen hirurak itzulpenak. Hain zuzen, Aby Warburgen *Sandro Botticelliren Venusen Jaiotza eta Udaberria* eta Walter Benjaminen bi testu, *Denbora, historia eta artearen inguruko testuak* eta *Literatura oharra*. Azken izenburua Mikel Onandiak hainbat komunikabidetan idatzitako arte-kritiken bilduma da, *Arte kritika eta flamingoak zero berdean (2009-2015)* izenburuarekin. Beraz, oraingoz itzulpenak eta bertako egileen lanak aldizkatu ditu argitaletxe berri eta espezializatu horrek.

Laburbilduz, argi geratzen da elebidunak diren argitalpen akademikoetan (*Ondare, RIEV*) oraindik zaila dela euskarazko ekarpenak topatzea, unibertsitateko argitalpenei lotzen zaizkien arazo berdinegatik ziurrenik. Bestetik, *Jakin* bezalako euskarazko aldizkari batek esparru aproposa dirudi, eta izan da, artearen inguruko eztabaidak izateko, kulturaren beste alor batzuekin uztartuta. Ederra litzateke, hortaz, artearen presentzia hori indartu eta sendotzea.

### 3. Museoen argitalpenak

Hurrengo atalean aztertuko dugun literatura mota ezin da beharbada kasu guztietan akademikotzat hartu; zenbaitetan kritika, entsegua eta are literatura sortzailea barneratzen du. Hala ere, bai egileentzat bai ikertzaileentzat iturri baliagarri eta emankorrak izaten direnez, nahitaezkoa da aipua eta azterketa, orokorra bederen. Museoeak eta erakusketa-aretoek sortzen dituzten aldizkari, katalogo eta monografiak buruz ari gara.

Bitxia badirudi ere, oso literatura espezializatuaz ari garen heinean, eta horrek publiko urriarentzat ekoizpen txikia ekarri ohi badu ere, atal honetan topatzen dugu arte garaikidearen inguruko euskarazko emankortasun handiena. Lehen aipatu dugu itzulpenaren garrantzia, eta kasu honek erakusten du gure tesiaren balioa: instituzio publikoek bi hizkuntza ofizialetan argitaratzeko betebeharra izanik, dagokigun esparruan sortutako baliabideak aurreko hirurak elkartuta baino askoz ere oparagoak dira. Adibide gisa *Zehar* aldizkaria hartuta, Artelekuko artxibategi

digitalean egindako bilaketak euskarazko 409 izenburu ekartzen dizkigu. Beraz, ezinezkoa da ikerketa sakonago bat burutu gabe informazio honen guztiaren azterketa arrazoitua egitea, baina nahitaezkoa da haren garrantzia azpimarratzea, eta, behintzat, erabiltzaileen mesederako hainbat testu mota desberdintzea.

### 3.1. Aldizkaria eta erreferentzia: *Zehar*

Aldizkariekin hasita, zalantza gabe, garrantzitsuena eta azpimarratu beharrekoa dugu *Zehar*. Aldizkariaren lehen garaian, 1989an hasi zenean, bi hilabeterik behin agertzen zen eta oraindik ez zen elebiduna. Izan ere, euskararekiko izan zuen harremana ikertzea interesgarria da, gorabeherak topatzen baititugu. Hasiera batean, egile bakoitzak testua nahi zuen hizkuntzan idazten zuen, eta ez ziren itzultzen. Hala ere, argia da euskarazko artikulua bat behintzat zenbakiro izateko asmoa. Lehen zenbakian baziren jada euskarazko bi artikulua: Joxan Muñozek idatzitako «Begikoa» eta aldizkariaren azken orrialdean agertzen zen «Arte garaikideko hiztegia» artikulua, luzaro iraungo zuena aldizkariaren osagarri gisa. Beraz, gaztelaniazko artikulua gehiago badira ere, zenbaki guztietan euskarazko artikulua edo testu sortzaile sendoa bat gehi «Arte garaikideko hiztegia» topa daiteke gutxienez, eta zenbaitetan bat baino gehiago. Euskarazko idazleen artean, Muñozek gain, Bernardo Atxaga, Joxemari Iturralde, Patxi Perurena edo Karlos Linazasoro aurkitzen ditugu besteak beste, hots, maiz literaturaren munduarekin loturikoak.

Aipagarria da ere 25. zenbakitik aurrera beste hizkuntzetako artisten idatzien itzulpena ere agertzen hasi zela, eta kasu horietan gaztelaniara zein euskarara egiten zirela, zenbaki horretan topa dezakegun Donald Judd-en «Objektu espezifikokoak» testuaren kasuan legez. Hasieran, itzulpen horiek euskaraz jatorrian idatzitako testuekin batera agertzen ziren zenbakian, eta gutxi batzuetan horiek ere gaztelaniara itzultzen ziren, 29.ean bezala, non Dan Grahami egindako elkarrizketa batez gain, Joxean Muñozen kritika bat ere agertzen den bi hizkuntzetan. Hala ere, joera hori ez zen zenbaki guztietan mantendu. Gehienetan, beste hizkuntzetatik ekarritako testuak gaztelaniara zein euskarara itzuli ziren, baina nabaria da bertako idazleen jatorrizko euskarazko testuen gutxiagotzea. Joera hori 30. zenbakitik aurrera areagotuko da, gaika antolatuko baitira zenbakiak, eta maiz gertatuko da testu bat bera ere ez dela euskaraz idatziko, bertako idazleek gaztelaniaren hautua egingo baitute. Horren adibide dugu rockari dedikatutako 35. zenbakia, 1997ko negukoa. Beraz, hasieran euskarazko testuak gehitzeko ahalegina nabaria izan zen bitartean, 1995etik aurrera euskarazko jatorrizko ekoizpena nabarmenki jaitsi zen, beste hizkuntzetako testuen itzulpenak ugaritu baziren ere.

Une hau aprobeztatuko dugu arte-munduaren globalizazioak euskarazko ekoizpenaren gainean izan duen eragina aipatzeko. XX. mendeko 90eko hamarkadaren bukaera bienalez eta nazioarteko sareen sorkuntzaz beteriko garaia da; gero eta estuagoak izaten dira testuinguru artistikoen arteko harremanak, eta horrek ere gutxiengoaren hizkuntza prestigio-galera batera daramala pentsa genezake. Horren arrazoiak sakonago aztertu beharko lirakekeen arren, aipagarria da gehiago idazten zela euskaraz arteaz *Zehar* aldizkarian 1989tik 1995era hurrengo urteetan baino, berez, hiztunen eta alfabetatuen zenbakia igotzen zen

adin berean. Euskararekiko mespretxua arte-praktiketan eta aurkezpenetan gaur arte mantendu da, Arte Ederretako ikasleen erdiak euskalduna izan arren, beka-eskaeretan eta proiektuen erredakzioan euskarazko testuak topatzea arraro samarra izanik. Ingelesaren presentzia areagotzen ari da batetik, baina horren ezagutzarik ez badute, badirudi gaztelaniaz idazteak eta adierazteak artelanari zabaltzeko bide handiagoa emango diola. Esan bezala, fenomeno horrek ikerketa sakonagoa mereziko luke, baina erraz identifika daitekeen joera da, eta *Zeharen* bertan ikus daiteke aldaketa hori.

Beharbada joera horri erantzuna emateko, eta horrek sortzen duen euskara literatura kritiko eta akademikotik desagertzea geldiarazteko, 2002. urtean guztizko aldaketa planteatu zen eta testu oro itzulita agertuko da lehen aldiz 47/48. zenbakian, udako alean. Horrela, zenbaki horretatik eta azkenera arte, 2009an agertu zen 65a alegia, testu guztiak bi hizkuntzetan argitaratuko dira, euskararen presentzia bermatzeaz gain, hizkuntza horretan idatziriko testu anitz eskainiz, gerora euskarazko ikerketarako funtsezkoak izan daitezkeenak. Egun, gainera, artikulua horiek guztiak Artelekuko on-line artxibategian osorik daude eskuragarri, arte-zentroak argitaratutako beste liburu eta katalogo askorekin batera, eta horrek sano errazten du euskal artearen azken urteetako ibilbidearen jarraipena.

### 3.2. Katalogoak, kritikaren altxor

Itzulpen-politika horrek euskarazko jakintzaren esparruan beste alderdi bikain bat utzi digu erakusketen katalogoen bitartez. Hain zuzen, Bilboko Arte Ederren Museoa eta Guggenheim Museoa kenduta (lehenak politika hau orain dela gutxi aldatu du), beste arte-zentro eta museo guztiek bi hizkuntzetan argitaratzen dituzte ekoizten dituzten erakusketen katalogoak. Horrek euskal zein nazioarteko artisten bibliografia senda eta aberatsa dakar, kontuan izanda gainera zein murrizta den eremu akademikoan euskaraz sortutako literatura. Proiektu ederra litzake argitalpen horien guztien datu-basea sortzea, zeren katalogoek duten alderdi txarra banaketa eskasa eta presentzia ez oso ikusgarria izaten baita. Hori lortu bitartean, iturri horiek eskaintzen duten ikerketarako garrantzia azpimarratuko dugu, eta haien barnean gordetzen diren iritzi, entsegu eta ikerketa sakonak gomendatu.

Ezinezkoa litzateke, berriz ere, katalogo guztien ikuspegia atal honetan eskaintzea. Gainera, argitaratzeke dagoen *RIE*veko azken zenbakian Ismael Manterolak eta Haizea Barcenillak euskarazko kritikaren gainbegiratua jorratu dute, eta artikulua horretan beste hau osa dezakeen informazioa topatuko da erraz. Hala eta guztiz ere, aipatuko ditugu euskarazko kalitatezko katalogoak sortu dituzten hainbat zentro.

Gipuzkoan aipagarriak dira batez ere Koldo Mitxelena Kulturuneko bi aretoak, Areto Nagusia zein Ganbara. Ganbarak banakako erakusketak gauzatzen dituenaz, artista bakar bati buruzko testu interesgarriak eskaintzen ditu maiz. Areto Nagusiko katalogoek, aldiz, taldeko erakusketen berri eman ohi dute. Zenbait ale garrantzitsu ekoitzi ditu, adibidez, eskuliburu gisa erabilia izan zen 1996ko arte minimalistari dedikatutakoarena. Horiekin batera, San Telmo Museoa genuke hurrengo

argitaratzaile garrantzitsua. Kutzak eta Kubo aretoak katalogo asko ekoitzi dituzte, gehienak euskaraz. Artelekuk bere tailerren eta erakusketen katalogo elebidunak argitaratu zituen orobat. Beraz, Donostia euskarazko artearen inguruko idatzi askoren iturri izan da.

Bizkaian, hainbat dira euskaratutako katalogoak sortzen dituzten espazioak. Rekalde Aretoa, Bilboarte eta Azkuna Zentroa ditugu horien artean, nahiz eta, aipatu bezala, Arte Ederren Museoak eta Guggenheimek zentzu horretan huts egin, ez dira gutxi izan beste lekuek eskainitako kalitatezko testuak.

Arabian Artium museoa da azpimarragarria, erakusketa-ekoizpen handia izateaz gain, katalogo sendoak egin baititu, guztiak euskaraz. Berarekin batera aipatu beharrekoa da Montehermoso zentroa, nahiz eta haren ekoizpen nagusia geroago aipatuko dugun monografia eta erreferentziatzko liburuen atalean, ekarpen honetan bertan.

Nafarroan Oteiza Museoak eta Uharteko Arte Zentroak argitalpen elebidunak egin dituzte, nahiz eta bigarrenak ekoizpen txikia izan. Lehenak aldiz artistaren inguruko katalogo interesgarriak sortu ditu, gehi lan honen hurrengo atalean aztertuko ditugun bestelako testu motak ere.

Azkenik, Iparraldean euskarazko katalogorik ez dugu topatuko, hizkuntza-politika, oro har, Hego Euskal Herrikoaren kontrakoa izanik, ez baitute frantsesez besterik ekoizten.

Beraz, ikus dezakegunez, itzulpen-politikak praktikan jartzen direnean, inbertsio zororik egin gabe, euskarazko baliabideak biderkatu eta benetan aipagarria den datu-base bat sortzeko aukera agertzen zaigu. Aldiz, EHUko edo Eusko Ikaskuntzako argitalpenekin ikusten genuen legez, halako lana hartzen ez denean, euskarazko ekoizpena jaisten da. Itzulpenak ez luke zertan bakarrik gaztelaniara edo ingelesetik euskarara izan; euskarazko artikulua ingelesera itzuliko balira, aurretik proposatu bezala, nahiko ziurra da askoz ere egile gehiagok euskaraz idazteko hautua egingo lukeela. Baina halako politikarik gabe, Iparraldea kasu, arte garaikidearekin lotutako euskarazko testuen ekoizpena arriskuan jartzen da, eta haren prekarizazioa areagotzen da.

### **3.3. Iturburuak, monografikoak eta erreferentzia-liburuak**

Atal honekin bukatzeko, azpimarratu behar da arte-zentro eta museoek artisten idatziak, testu teorikoak eta bestelako erreferentzia-liburuak euskaratzen egindako lana, askotan, eta tamalez, unibertsitateak edo bestelako ikerketa-erakundeek egindakoa baino garrantzitsuagoa.

Esate baterako, Oteiza Fundazio Museoak Oteizaren idatziak edizio elebidunetan kaleratu ditu, adibidez *Poesia* (2006), *Quousque Tandem...!* (2007) edo *Aldaketan legea* (2013), besteak beste. Museoko liburuxkak ere itzulita ditu, horrela eskultorearen gaineko ikuspegi kritiko euskaratu oso eta kalitatezkoa eskainiz.

Lehen aipaturiko Montehermoso Kulturuneak urtero *Ekoizpen artistikoa eta arte teoria feminista: eztabaida berriak* ikastaroa antolatu zuen 2008 eta 2011 bitartean, alderdi horretako ikertzaile, artista eta teoriarari funtsezkoak gonbidatu eta bertan aurkeztutako ponentzia guztiak euskaratuak eskaini zituen. Horrela, jardunaldi horien itzulpenaren bidez, funtsezko errekurtsoak eskaintzen ditu Montehermosok arte garaikidearen eta arte-teoria feministaren arteko loturak aztertu eta garatzeko.

Baina bien aurretik, berriz ere, Artelekuren garrantzia aipatu behar dugu, *Zehar* aldizkariak eta erakusketen zein tailerren katalogoez gain, bertan ospatutako jardunaldi eta ekarreten inguruko argitalpen anitz egin baitzituen Koadernoak izenpean, berriz ere arte-sorkuntzarako iturri eta oinarri teoriko izan direnak maiz. Hainbat izan dira bertan landutako gaiak, eta, berriz ere, antolamendu eta analisi sakonagoa mereziko luke azterketa zehatz honek. Asko garatutako mintegietatik eratorriak dira, esaterako, ia zorizko hautaketa batean, Francisco Jarautak 1992ko mintegiaren ostean editatutako *Artearen eta kulturaren arteko tentsioak mende amaieran* genuke, Rafael Argullol, Valeriano Bozal, Fulvio Carmagnola, Antonio Fernández-Alba, Jarauta bera, Ezio Manzini eta Juan Antonio Ramírezen testuekin; edota berriz ere Jarautaren esku 1998an egindako Joeren Analsiaren Nazioarteko VII. Mintegitik sortutako *Poetikak/Politikak: kritikak eta utopiak* edizioa, Gillo Dorfles, Aldo Giorgio Gargani, Josep Quetglas, Mireia Sentis, Perry King & Santiago Miranda eta Emilio Solaren testuez osatua; edo Maria José Belbelek 2003an zuzendutako *Ezagutza feministak eta itzulpen politikak* izen bereko jardunaldietatik eratorria, eta Eve Kosofsky Sedgwick, Wendy Brown, Gayle Rubin eta Belbel beraren testuekin. Badira ere, ordea, osotasunean editatutako liburuak, adibidez, Javier San Martínen *Begirada Urduria: manifestu eta testu futuristak*, abangoardia internazionaleri buruzko lehenetarikoa eta Arte Ederren Fakultatean oso erabilia izan zena.

Ondorio gisa, esango dugu museo eta arte-zentroek une honetan funtzio garrantzitsua betetzen dutela arte garaikidearen inguruko euskarazko ikerketa eta ekoizpenean. Argia da, esaterako, Artelekuk lan garrantzitsua egin zuela Euskal Herrira beste kokaguneetako praktika eta teoria globalak ekartzen eta haien aztarnak euskarazko testuetan uzten. Bada garaia estrategia horri, eta beste esparru instituzional batzuetatik, kontrakoa gehitzeko: euskaraz jatorriz egindako ikerketa eta idazkera itzuli eta zabaltzeko, horrela idazle zahar zein berriak bultzatuz, eta sortzez euskaraz osatutako ikerketara dedikatzen diren ekimenei, *Jakin* edo *Uztaro* kasu, beren bidean lagunduz.

#### **4. UEUren *Uztaron* arte-alorreko artikuluko-ikergaien agerpen aldizkakoa, kokapena eta trataera akademikoa**

*Nire ustez, lan bat argitzea lana bera baino inportanteagoa da eta hala izan zen Kandinskyrentzat ere.*

**Jorge Oteiza, *Quousque tandem...! (Noiz arte...!)***

Arte-sorkuntzan bertan parte hartzearen eta nolabait «eskuak bustitze»aren testuinguruan garbiri atzematen dugu artelan baten edota sorta zein segida baten «argitze»aren garrantziak ez duela esan nahi, halabeharrez, arteaz idazteko premia

ezinbestekoa dugunik. Jakin badakigu, aitzitik, bai Oteizak bai eta Kandinskyk ere nola iskribatu zuten, biak ala biak horretan antzeko pareta izanik (nahiz eta zuri-beltzean jarri zutena, nola ez, desberdina izan). Halaber, arteaz mintzo «lan bat argitzeko» beharrak eta zirrarak beti hizkietatik pasa behar ez duenez (idea hori maiz balioetsi izan dugu), lumaz, arkatzez, pintzelez eta bestelako baliabideez paper-euskarri leun hutsaren gainean sastaturiko erliebe soil grafikoek ez dituzte beti letra larri edo xeheak irudikatzen. Hala delarik, ezin dugu oharkabean pasatu arte plastikoaren alorreko idazmen-grinak agian beste jakintza-eremuetan baino dezente urriagoak izan direla/daitezkeela, tradizioz ezak ere, askotan, delako ideia-eremuetan laguntzen duen bitartean.

Abiapuntu honi herri txiki bateko hizkuntzan moldatu beharreko idazkeraren afera gehitzen badiogu, arte-alorreko ekarpen «zientifikoak» (kakotx artean) are eta eskasagoak izango dira; eta egoera horrek zeresana izan lezake *Uztaro* aldizkariaren bilakaeran aurki ditzakegun adibideetan. Zenbakiz edo kopuruz beharbada gutxi izanda ere, uste dut testu horien kalitate orokorrak ez duela aparteko dudarik pizten, autoreek egindako ahaleginak bihotzetik eskertuz. Aipaturikoaz beste, kasik oraintsuraino arte-sorkuntzaren mundu akademikoan ere (artearen historiako tradizioz ezberdinduz) ikergaien araberrako kriterio zientifikoek idazteak izan duen oihura ez oso sendotuak erritmo geldoen inertziak elikatuko zituen seguruenik. Azken finean, *Uztaroko* adibideak erakusten eta «argitzen» digu artea bera, sorkuntza gisa, zail xamar ager daitekeela idazlanez hornitua. Izan ere, artikuluen gaiak arte-sorkuntzaren gako-erdigunean baino aldirietan hobeto koka ditzakegu, artea inguratzen duten aldameneko gaietan, bere aplikazioan eta luzapenetan (historiaz aparte).

#### **4.1. *Uztaro* aldizkariaren eragin-esparru behinenak, bere izena eta izana**

Gaur egun, oro har, desberdintasun txikien izendapena alboratuta, giza jakintza zientifikoaren eta haren produkzio-aplikazio akademiko-profesionalaren barnean identifikatzen diren bost ezagutza-eremu nagusiak honakoak lirateke: Zientziak (A) eta Osasun Zientziak (B), Ingeniaritza eta Arkitektura (C), Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea (D). Haren barneko aldaera berezituagoak: Zuzenbidea (a), Enpresa eta Ekonomia Zientziak (b), Jokaeraren Zientziak (c), Hezkuntza Zientziak (d) eta Gizarte Zientziak (e). Azkenek, Arte eta Humanitateak (E) leudeke: arlo orokor horretan, Historia eta Filosofia (a), Filologia eta Hizkuntzalaritza (b), Artearen Historia eta Adierazpen Plastikoa (c) bereizten dira. Goiko paragrafoetan bota ditugun oharkizunak batez ere Adierazpen Plastikoari dagozkio, ez hainbeste Artearen Historiari. *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria* den heinean, Gizarte Zientziak eta Zuzenbidea (D), eta Arte/Humanitateak (E) barnebilduko lituzke. Argiro dakusagu, bi eremu zabal horietan txertatzen diren ikerlan erako ekarpenak direla *Uztarok* gehien argitaratu izan dituenak. Horietan finkatzen dira Kazetaritzako eta Informazio Zientzietako, Antropologia eta Soziologiako, Ekonomiako, Zuzenbideko, Psikologiako, Hizkuntzalaritzako, Ikasketa Klasikoetako, Historiako nahiz Hezkuntzako lanak. Behinola, ohiko Zientzietako bat edo beste irristatu izan da *Uztaroko* orrietan eta azken boladan, aldizka, Artearen arlokoak izan dira tartean.

Gainbegirada prestu baizen orokorraren bultzadaz, bizpahiru gai-talde ikusta genitzake Artearen arloko azpigai legez *Uztaron* inprimatuak. Agerpen-kronologia alde batera lagata, artikulu-emariari erreparatuz horietako bi arte-hezkuntzaren diziplinan peto-petoan sartzan direla ziurtatuko genuke. Batak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan zentratzen du bere ikergunea; zer-nolako Plastika eta Ikusizkoen Hezkuntza jorratzen den eta nola hori testuliburuek ahalbidetzen duten, horien irudiei arreta eskainiz. Gida bezala erabiltzen diren ikasmaterial ohikoenak azaleratzen dira berauek aztertzeko parametroekin (irudi artistikoak, medioen kulturarenak eta bestelakoak). Emaitzetan kultura «bisuala» lantzeko ikuspegi eraginkorren falta sumatzen dute egileek, normalean eskuliburu horietan modu zaharkituak eta bideratuak nozituz, bai edukietan bai eta edukiok planteatzeko proposatzen diren jarduera eta prozeduretan ere. Ikasketa bisualen oinarrizko markoetatik at, beste artikulu batek sorkuntza artistikoaren, heziketaren eta ikerketaren arteko gatazka ekartzen digu gogora eta agerrarazten dituen galderen artean, arteak errepresentaziozkoa izateari utzi zionetik, zein prozesuren bidez eta zeren bitartekaritza ikertu eta irakatsi daitekeen saiatuko da asmatzen. Eskulturaren baitako ikusmiratik goi-mailako arte-hezkuntzan errotzen diren hainbat premisatara jauzia egin ahal izango dugu, gaurdaino izan ditugun bi joeren artean: interpretaziozko artea irakastea ala artea interpretatzen ikastea, alegia. Materialtasunez sinbolikoki «altxatzen» den elementua izaki, artea interpretatzea eta arte-sorkuntzako akzioa bera gauza parekideak ez direnez, artearen praxian bere horretan euskarritzen den heziketa eta ikerketarik zilegi ote den hausnartzen zen, batik bat gidalerro akademikoari zor diegun egokitzapenean.

Badaude beste hiru artikulu printzipioz artearen sortze-prozesuetan barneratzen direnak, horretarako «estrategia» edota «aitzakia» batzuk erabiltzen badituzte ere. Bata nazioartean ezagun izan den Nan Goldin artistaren obran euskarritzen da, biziztatik arterako eta artetik bizitzarako bikoiztasuna lekuko. Artearen eta subjektu garaikidearen eraikuntza-aukerez (bai modernitatean baita postmodernitatean ere) aritzen da eta diskurtso horretan intimitate-kontakizunak (narrazioak) askatze-errepresentazio legez nagusitasuna hartuko du, argazkilaritza (familia-argazkiena konkretuki) eta oroimena zuzen-zuzenean erlazionatuz. Hori dela-eta, memoria-eraikuntzak eta oroitzapenak sendi arteko argazki-bilduma horien eskutik gureganatzen ditugu argazki-irudiz eginiko autobiografiak bailiran. Izatez, norberaren esperientzian errotuz biografia propioa kontatzen duten idatzizko mintzamenaren tankerakoak lirateke argazkizko bizitza-ipuin horiek (M. Manfredi). Era horretako beste artikulu bat<sup>1</sup>, gure iritzi apalean, iradokizuna ardatz duen zinema librearena izango litzateke, horretarako amua beste sortzaile baten, Koldo Almandozen, zinemagintza delarik, euskal zinemak azken urteotan eman duen egilerik esanguratsuenetako bat autoreen ustez. Ikerkuntzak zuzendari donostiarraren pelikuletan erabiltzen diren baliabide narratiboak eta aukeraketa estetikoak plazaratzen ditu, besteak beste joko narratiboak, genero-hibridazioak eta irudiaren gailentasuna une oro presente dituen interpretazio askeko zinea dela erakutsiz eta kontakizun-ariketa

---

1. Testu hau, izatez, *Uztaro* aldizkarian 2013ko uztaila-iraila bitartean argitaratua (86: 149-166) «Artea» ordez «Zinema» lemapean agertu zen, definizio horrekin aurkitu dugun bakarra izanik. Gaiaren aldetik sorkuntza estetiko artistikoarekin bat egiten duenez, arte-alorrekoen artean zerrendatzea hobetsi dugu.

eklektiko bezain iradokitzaileak aurkeztuz. Azkenekoak, gizarteak eratzen dituen egitura konplexuetan barna, teknologia bigunak gailu artistiko legez kontsideratzen dituen egitasmoak agerian uzten du arte-praktika garaikideak «makina sozial»en dinamiketan nolako rola bereganatzen duen, eta, aldi berean, artea nola saiatzen den «makineria soziala» ulertzen errealtate ohar gaitzak irudikatzeko gaitasunetik abiatuz. Teknologia bigun horiek hein handian Gizarte Zientziekin elkarloturik izanik, arte garaikideak aipatu «makineria» eragiteko erabili ahal dituen teknologia bigunez gogoeta egiten da (batik bat komunikazioari dagozkionak). Kontzeptuak berak jadanik bi norabide bereizten dituelarik: irudikapeneko «makina sozialak» eta «performatiboak»; eta nola horiek artearen «makina abstraktuak» bihurtzen diren.

Nahiz eta gaiak zein trataerak erabat anizkoitzak izan, «Jorge Oteizaren *Quousque Tandem...!*: irakurketa berriak» artikulua XX. mendeko bigarren erdialdean garrantzi erabakigarria izan zuen saiakera horren edizio kritiko berria proposatzen digu —garaiko euskal kulturaren birdefinizioetan hainbeste eragin zuena— sortzaile handi horren ibilbide artistikoa eta pentsamendu estetikoak beste ikuspuntu batetik ulertzeko. Autoreak berak diosku behar-beharrezkoa dela Oteizaren eskultura nahiz haren testu ugariak begirada zabalagoz miatzen hastea, euskal kulturaren zorrora mugatu baga. Hemendik Oteizaren sorkuntza-lan erraldoia egokiago ulertzen eta balioztatzen joango ginateke, beste artista eta jokabideekin harremanetan.

Oteizak berak akabuan «hirira saltoa» emango zuen, zeren eta hortxe topatzea baitzegokion bere teoria artistiko estetikoaren mamitze praktiko kulturala. Hamarraldi batzuen bueltan, XX. mendetik XXI. mendera egindako beste «salto» horretan arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak hirietako izaera estetikoetan nola isla daitezkeen ikertze-lanetan, elementu horiek Donostiako badian «eraikitzen» duten itsas bazterreko espazio urbanoan aztergunea duen artikulua bat daukagu, itsasoaren aldameneko hiri-paisaiaren agertoki diren ertz historiko horiek gorpuzten duten hiri-egituraketa begitanduz. Agertoki adierazkor horretan, «itsas behatokiak» atontzeko eskultura aldi berean eraikitzailea eta baldintzatzailea izan daiteke. Donostiatik Bilbora, bertako hiri-garapena sorkuntza artistikoan islaturik: 1975-2010 bistaratzen digun lanak azken hamarkadetan Bilbok jasandako garapen urbanoak eta batik bat hiri-paisaiaren arte plastikoetan zein isla izan duen agerian jartzen digu. Hau da, adierazpen plastikoak nola tratatu dituen XX. mendearen amaieran hiri-paisaia eraberrituari dagozkion gaiak, mende horren bukaerako estilo- eta kode-eraldaketekin batera. Hiri-taxutze berriek arte-errepresentazioetan zer eragin izan duten hiriaren beraren kontzepzioan, hiriko biztanleengan duen eragina bortitza izanik. Estiloen baitan mantenduz, Bizkaiko eliz arkitekturaren tipologiak 1850-1930 urteen bitartean ondare-monumentuetan izandako esku-hartze artistiko eta arkitektoniko nagusiekin uztartzen dituen artearen historiako ekarpena genuke. Orduan sortu berri ziren monumentuak zaharberritzeko tekniketan arkitektoek saiatuako estilo aberatsek sano eragin zutela ez da oharkabean pasatzen, estiloaren adierazpen-arazoek kezka berridatziz.

Artearen eragin- edo aplikazio-esparruen testuinguruan, artea bere horretan industria-ekoizpenarekin lotzen duen idazlanak objektu artistikoa eta haren egunerokotasuna dakarzkigu gogora, konkretuki eskulturaren eta diseinuaren

arteko muga-harremanak xahutuz. Kontu egiten du batez ere XX. mendeko 80ko hamarkadatik gaurdaino (postmodernitate hitzaz izendatutako garaian) eskulturaren eta diseinuaren limiteen desagertzearen edo nahastearen hamaika eredu ditugula bai artean baita objektu erabilgarrietan ere. Eginbehar horretan asmo eta funtzio erabilgarri zein estetikoarekin sortutako objektuak aukeratzen dira adibidetzat, dekorazio hutsala diren beste batzuetatik bereiziz.

Teknika jakinen ezagutza-arloetan zaharberitzearen konplexutasuna agerian uzten duen artikulua bat aurkitu dugu, XIX. mendeko paper gaineko argazki koloreztatuak dagokiena. Kolorearen gabezia, hain zuzen, XIX. mendeko «argazkigintzaren iraultzak» ekarritako argazki-irudien arazoetako bat izan zen. Egoera horren aurrean zuri-beltzezko irudi primitibo haiek koloreztatzeari ekin zioten, batez ere paper gainean emultsionatu zirenak. Ikerlanak koloreztatzekeo zer argazki-prozesu aukeratu zituzten eta kolorez hornitzeko zer material erabili zuten aztertzen du, egindako bideak nolako eragina izan zuen argituz gerora garaturiko zaharberitze-prozeduren kasuan.

Bukatzeko eta koloreei lotuta, aurrekoarekin zerikusirik apenas duen beste perspektiba batetik koloreen bilakaera euskal testuinguruan xehatzen duen saiakera izan zen *Uztaro* aldizkariak arteaz argitaratu zuen lehena. Kolorearen fenomeno kulturala bere bilakaera historikoan kokatzen du eta ibilbide hori nola euskal kulturaren koloreen esanahia berezituarekin gauzatu den adierazten digu. Bilakaera horren barnean etapak eta faseak bereizten dira, bere barneko logika ezagutzeko beharrezkoak direnak. Beste behin, gizakiaren garunean koloreek dirdira egiteko duten moduak erruz kulturalak direla ohartuko gara. Kolorea/hitza binomioak ere eginkizun zehatza du teoria horien oinarrietan (hitzen aniztasunaz, euskalkien hedaduraz, sailkapenez, toponimiaz eta bestelako adierez diharduen aldetik), gaurdaino ailegatu zaigun historia luzean.

#### **4.2. Arteaz jorraturiko ekarpenen «gaztetasun»aren zioa, tesiak eta beste**

*Uztaroko* ehun zenbakien barne-erriak tentuz ikustatzuz, osoro harrigarria egiten zaigu konprobatzea jorraturiko ekarpenen «gaztetasuna» (gaztetasun erlatiboa, nolana ere); argudio honek hiru alderditik batez ere eragiten duela:

*Baga.* Artikuluak *Uztaro* aldizkariara helarazten dituzten ikertzaileen gaztetasuna, portzentaje oso altuan, kontuan hartuz batzuetan egite-fasean dauden edota berriki defendatu diren doktore-tesiei kateaturiko lanak izan daitezkeela, eta esparru akademikoan nozitzen ari den belaunaldi-aldaketa.

*Biga.* Ikerlan eta saiakerek darabiltzaten gaien eta arazoaren nolabaiteko «gaztetasuna» Artearen arloan, oraingoz, begirada historikoago batzuek aparte. Garaikidetasunak esan genezake presentzia handiagoa bistaratu duela.

*Higa.* Artearen alorreko artikulugintzak *Uztaro* aldizkarian bertan erakutsi duen «gaztetasuna». Kurioso da konprobatzea *Uztaroren* 100 zenbakiko ibilbideak 1990. urtean hastapena izan bazuen ere, 2007ko 62. zenbakiraino Arteari dagokion artikulua bakarrik argitaratu zela (13. zenbakian, 1995eko). Horrek esan ahi du

*Uztaro* aldizkariko zenbakien lehendabiziko % 60ak Artearen arloko artikuluen gabezia aipagarria izan duela, Giza Zientzien barnean kokaturiko diziplina izanik ere. Gainontzeko artikulua (Artearen arlokoak) aldizka agertuz joan dira, 2007tik 2017rako hamar urteko tartean, hain justu ere. 2010ean Arteko bi artikulua izan genituen urte berean eta beste bi 2013an, beheko taulen arabera:

<i>Artikuluaren izenburua</i>	<i>Autorea/k</i>	<i>zk.</i>	<i>urtea</i>
1) Gailu artistikoak. Makina Sozialak, Teknologia Bigunak eta Arte-praktika Garaikideak	Olmo Alonso, Saioa	100	2017
2) Sorkuntza artistiko, heziketa eta ikerketaren arteko gatazka. Eskulturaren baitako gogoeta batzuk goi-mailako arte-hezkuntzan erroturik	Vivas Ziarrusta, Isusko Lekerikabeaskoa Gaztañaga, Amaia	99	2016
3) Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza EAEn: zer-nolako arte-hezkuntza ahalbidetzen dute testuliburuaren irudiek?	Marcellán Baraze, Idoia Gómez Pintado, Ainhoa	89	2014
4) Artearen eta subjektuaren eraikuntza: Nan Goldin-en aukera, intimitate-kontakizunak askatze-errepresentazio gisa	Garro Larrañaga, Oihana	87	2013
5) Koldo Almandozen zinema: iradokizuna ardatz duen zinema librea	Lazkano Arrillaga, Iñaki Zubiaur Gorozika, Nekane E. Fernández de Arroyabe Olaortua, Ainhoa	86	2013
6) Bilboko hiri-garapena sorkuntza artistikoan islaturik: 1975-2010	Herrera Díez, Nerea	80	2012
7) Itsas bazterreko espazio urbanoa eraikitzen: arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak Donostiako badian	Vivas Ziarrusta, Isusko Lekerikabeaskoa Gaztañaga, Amaia	75	2010
8) Estiloaren adierazpena Bizkaiko eliz arkitekturaren (1850-1930)	Díez Paton, Eva	73	2010
9) Artea eta industria-ekoizpena. Objektu artistikoa eta egunerokotasuna	Lekerikabeaskoa Gaztañaga, Amaia	70	2009
10) Jorge Oteizaren <i>Quousque Tandem...!</i> : irakurketa berriak	Echeverria Plazaola, Jon	64	2008
11) XIX. mendeko paper gaineko argazki koloreztatuak	Artetxe Sánchez, Enara	62	2007
12) Koloreen bilakaera: euskal kasua	Preciado, Txema	13	1995

**1. taula. *Uztaro* aldizkariaren ibilbidean argitara emaniko Artearen alorreko artikulua guztiak (izenburu/titulua, autorearen/autoreen izenak, zenbakia eta argitaratze-urtea). Iturria: *Uztaroren* bertsio elektronikotik jasotako datuekin norberak egindakoa.**

Aurreko lerro eta paragrafoetan aipaturikoak ia-ia zentzu berbera hartzen du *Uztarok* zenbaki bakoitzaren amaierako orrietan argitaratzen duen doktore-tesien atalean. Arte-egikerari zuzenean dagozkion bi tesi identifikatuko genituzke lehenik eta behin. Horietako batek zoriaren esku-hartzean sakontzen du sormen-prozesu ludikoetan, eta haren egiaztapena bilatuz pintura-praktiketan. Horretarako, XX. mendearen bigarren erdian garaturiko esperientzia estetiko analitiko (artista bere sormen-prozesuari buruz hausnartzera bultzatzen duena) eta dialektikoetatik partituz (bere baitan jite intelektualagoa eta «bitalistagoa» leudeke), bigarrego korrante horren inguruko joera bitalistan errotzen du bere metodologia; pentsamendu sistematizatu eta linealarekin neurri batean apurtuko duen ezagutzaren teoriaz, «tranpa-jolas»aren eta sormen-prozesuaren arteko analogiak azaltzen saiatuz; zoriak sistema horretan duen eraginarekin batera. Beste tesi batek egoera traumatikoak hartzen ditu Artearen eta artistaren bitartekari moduan, horretarako Louis Bourgeois-en eskulturatik Artera eginiko hurbilpenekin. Arteak artistaren eta haren bizitzako esperientzia psikologiko mingarrien artean bitartekari bezala dituen balioak goraipatzen ditu, «trauma» terminoaren oinarri teorikoetan zedarrizuz zenbait autoreren ikasketetatik hasita. Bigarren partean L. Bourgeois artistak traumatikotzat zituen bizipenetatik haren eskultura-lanaren sailkapen eta klasifikazio morfologiko kronologikoa proposatzen da, artistaren jarrera, prozedura material eta adierei so, haren garapenean ezinbestekoak izan diren kontzeptuzko kategoriak argituz. Hemen ere, esanahi autobiografiko eta auto-adierazpenezkoak ager daitezke, betiere bizi-ezin deserosoaren sentipenak berrelaboratzeko intentzioarekin.

Artearen aplikazioak bilatu nahiez argazki koloreztatuak zaharberritzeko paper gainean erabiltzen diren zenbait kontserbazio- eta zaharberritze-tratamenduez diharduen tesi-aipamenak argazki-ondarean lekua duten argazki-irudi koloreztatu horiek berritzeko metodologiak zehazten ditu. Orduraino erabilitako tratamenduek sor zitzaketen efektu aztoragarriak, epe luzera egonkorak eta ez kaltegarriak lirakeen bestelako teknika eraberritzaileez ordezkatzeta eta finkatzeta proposatzen du, batez ere garbiketak koloreetan eta dentsitateetan sortutako kalteak ezabatuz. Tesi horren garapenak, beste kasu batzuetan ez bezala, *Uztaro* aldizkarian ikerketa-artikulu bat posible egin zuen bi/hiru urte lehenago, goian aipatu dugun 62. zenbakian.

Gainontzeko bi tesiak, Arkitekturaren alorrari zuzenago dagozkio. Hala ere, mahaigaineratzen dituzten gaietatik arte-arkitektura korronteak nabarmendu ditzakegu; baita paisaiaren estetikan igar daitezkeen agerkariak ere. Horietako batek giza presentziaren isla aztertzen zuen arkitektoen adierazpen grafikoetan, erakargarritasun subjektiboan euskarrituz: irudien egitasmo grafikoaren eraginpean duten edukiaren intuizioari jarraikiz egileen baitan dautzan ezagutzak irakurri nahian; gai arkitektonikoei dagokien saiakera legez irudien aitzakia agertuz. Irudiek «espazio piktoriko» deituarekin dituzten harremanak nahiz erlazio-erak, begiraleon espazioan duen eraginak adierazpen grafiko arkitektonikoan terminologia zehatza ardaztera darama egilea. Alde batetik, espazio piktorikoa ikusmenaren bidez begiralea bisitari bihurtzeko atontzen denean, «niaz» ari garela dio, eta, egilearen presentzia arkitektoaren pentsaera eraikiz egiten denean, «arkitektoaz» ari garela dio, biak ala biak borondate «grafiko»aren «erradiografiak» baitira. Bestetik, biztanlea pertzepziozko subjektu gidatua ez denean, «besteaz» ari garela deskubrituz. Hiru

kategoria horietan arrazoitzen den bereizketak, hortaz, begiralearen presentzia (nia), egilearena (arkitektoa) eta biztanlearena (bestea) banatzen ditu, presentzia koadro-planoa gainditzen duen ilusioak adieraziz lehenengoan, plano-koadroaren beharrik ez duen «erradiograma» bigarrena eta plano-koadroaren «lehiatilatik» adierazten dena hirugarrena. Lurralde-paisaiaren antolaketa-kudeaketari keinua egiten dion beste doktore-tesiak paisaia-ikuspegia lantzen du bere lau dimentsioetatik metodo interpretatzaile konstruktibista baten planteamenduarekin, Bilboko hiri-bazterreko inguralde menditsuetan aplikatua. Paisaia bera gizakiak urteen eta mendeen poderioz medioarekin ustiapen-elkarlanean eraiki duen geruza anitzeko fenomeno izanez, konstruktibismoa oinarri duen interpretazio-tresna garatzen da hiri-ingurumariko paisaiaren ikerketari enfokatua. Hasierako paisaia-izaeraren formulazio «espekulatiboa» hezuramaitzen da, gure ustez begirada estetikutik ez oso aldendua, ingurugiroaren ulermen sortzaile batetik berreraikuntzarako estruktura ikusgarri eta ikusezinak kontsideratuz. Lanabes ukigarri eta ukiezinak, joera interpretatzaile zabal enpatikoak, lekuko analisi-prozedura tradizionalagoak osatzeko eta birgaitzeko ahalmena izan lezake.

<i>Tesiaren izenburua</i>	<i>Egilea</i>	<i>Unib.</i>	<i>zk.</i>	<i>urtea</i>
I) PAISAIA-IKUSPEGIA ETA BERE LAU DIMENTSIOK: METODO INTERPRETATZAILE KONSTRUKTIBISTA BATEN PROPOSAMENA BILBOALDEKO HIRI BAZTERREKO PAISAIA MENDITSUEN KASUAN APLIKATUA	Uriarte Idiazabal, Maider	EHU	96	2016 <sup>2</sup>
II) ZORIAREN ESKU HARTZEA SORMEN PROZESU LUDIKOETAN ETA HAREN EGIAZTAPENA PINTURA PRAKTIKETAN	Fullaondo Zabala, Usoa	EHU	76	2011
III) ARGAZKI KOLOREZTATUAK ZAHARBERRITZEKO PAPEREAN ERABILTZEN DIREN ZENBAIT KONTSERBAZIO ETA ZAHARBERRITZE TRATAMENDUREN EGOKITASUNAREN AZTERKETA	Artetxe Sánchez, Enara	EHU	75	2010
IV) ARTEA ARTISTA ETA TRAUMAREN ARTEKO BITARTEKARI GISA. PSIKOANALISITIK ARTERA EGINIKO HURBILKETAK ETA LOUIS BOURGEOIS-EN ESKULTURA	Zurbano Camino, Amaia	EHU	71	2009
V) GIZA PRESENTZIAREN ISLADA ARKITEKTOEN ADIERAZPENETAN	Mujika Urteaga, Marte	EHU	66	2008

**2. taula. *Uztaro* aldizkariak doktore-tesien atalean aipaturiko Arteren alorreko tesi-laburpenak (titulua, egilea, aurkeztu zen Unibertsitatea, zenbakia eta aipamenaren urtea).**

**Iturria: *Uztaroren* bertsio elektronikotik jasotako datuekin norberak egindakoa.**

<sup>2</sup> 2. Zuzenago arkitektura-hirigintza alorrekoa izanik, baina batez ere arkitektura bere horretan *Uztaron* agertu ez denez, oraingoan taula honetara ekartzea eta bertan txertatzea erabaki da.

Amaitze aldera, ezingo genuke errebaso labur hau guztiz hertsu 100 zenbakien ibilaldi pozgarri honetan Artearen arloan ustez koka ditzakegun bi liburu-aipamenei azken hitz pareta dedikatu barik. Bata *Quosque Tandem...! Euskal arimaren ulerkera estetikorako saioa* liburuari eskainitakoa izan zen (2009ko uztaila-iraila, 70: 133-138), gai berberaz hilabete batzuk lehenago argitaratu zen artikuluaen arrastoari jarraituz, eta, bestea, *Telebista-produkzioa* liburu ezagun euskaratuari buruzkoa (2008ko urria-abendua, 67: 113-118). Hori ere ez litzateke aurkituko arte plastikoaren muinoan, baina bai, ordea, ikus-entzunezkoetan oinarritutakoa dena, eta ikaslearen eskuliburu preziatua.

## 5. Irekitako bideak, oztopoak eta etorkizunerako erronkak

*L'absolu me signifiait soudain sa présence inaccessible et, déjà, à ma soif impérieuse, je ne savais quelle source offrir pour l'apaiser. Ce fut sans doute ce jour-là que je suis né en tant qu'artiste; par ce suprême échec que l'art est toujours, l'homme [...] essaye de faire passer pour une réponse ce qui est condamné à demeurer comme une tragique interpellation.*

**Romain Gary (1980: 134)**

Izatez, artistak badaki bere esperientziagatik kritikariari sarritan «gezurrak» bururaten zaizkiola (S. Sontag). Nola ez, honakoa zinez probetxugarriagoa litzateke jakin baleki, baita, hura beste modu batean izan zitekeela ere. Oteizak esaterako, «teoria kritiko» bat asmatu eta gorpuztu zuen, non («euskal arimaren») «izate estetiko» ezagutza zientifiko ororen anitz zirrikietan kokatzen den; zehar-gurutzapenetan, gizakiaren salbamen existentzialaren promesa gisa. Hori guztia porrot itzela izan zen, noski, «artista» bezala «jaiotako»aren patua nonbait.

Salbamen-promesa handiegirik gabe, «tranpa sinbolikoak» jartzen zituen «artista-ehiztariak» beste (Oteiza), beharbada, *Uztaro* aldizkariak isil-isilka errepide galanta ireki du bere aitzinean eta buruari buelta emanaz baita giblean ere. Bide horren erdiko partean hasi ziren Artearen arloko lanak apika besteengana hurreraten, eta esango genuke ez dela hain erraza izango errepide horretatik dagoeneko zeharo urruntzea. Ez genuke nahi behintzat. Oztopoak izan dira, komentaturiko ohitura-eza kasurako, eta horrekin batera euskal hizkuntzaren trebezia, idazteko abilezia minimo batekin konbinaketan hainbat autore potentzialengan beldur-izpiak eragin dituen. Indarrak bidaltzea egokituko litzazuke, beraz, kontuan izanez, salbuespenak salbuespen eta oztopoak oztopo, Artearen alorreko proposamenek normalean *Uztaro* aldizkarian oso estimatuak izan direla eta harrera txit samurra izan dutela, agian kasualitatez bada ere, horietako artikulua gehientsuenak dagokion zenbakiko aurkibidearen lehen orrialdeetan argitaratuz, erabilitako erreferentzia bibliografikoetan ikus dezakegun bezala. Euskaraz irakurritako doktore-tesietan arreta bizkorragoa pausatzea legoke, tesi horietatik eratorritako artikulua-deiak egileei ahal bezain azkarren bideratuz eta, zeresanik ez, euskaraz argitaraturiko arte-liburuaren aipamen arrazoietan.

Euskal artikulugintzan diharduten artista plastikoaren emaitzak akademikoki gero eta jantziagoak badira ere (agian irakaskuntzaren mundu akademiko horretan irauteko derrigorrezkotasanagatik), aldizkako jarioak dakarren uztak oparagoa izaten jarraituko duela nabaria da, baita *Uztaron* ere, ekoizpen «zientifiko» mugatu

horren galbahetik iragazteko beharrianagatik bada ere. Bide horri ekiten darraizkion Artearen historiagileek autobide zuzen eta mardulak ireki zituzten jada, neurri batean bederen. Artista plastikoek, aldiz, bidexka estu eta bihurtuak, arte-sorkuntza deituriko horren magalean ernaltzen diren baso ilunetan murgildurik. Zuhaitz artetik noiz edo noiz egun argitzen den legez, *Uztaro* bezalako plataforma sustraituek ere «argitzen» laguntzen dute, eta hau izan daiteke etorkizun hurbil/ertainerako erronkarik bideragarrienetakoa.

## Erabilitako erreferentzia bibliografikoak

- Aguilera Cerní, V. (1995): *Arte garaikidearen hiztegia*, EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Andrieu Sanz, A. eta Lekue Rodriguez, P. (2014): *Lehen hezkuntzarako ikus-hezkuntza. Arte eta ikus-kulturaren hezkuntza irakasgairako ikasmaterialak*, EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Aranburu, M. J. (1994): «Euskal artearen historiari buruzko bibliografia», *Jakin*, **80**, 55-71.
- Artetxe Sánchez, E. (2007): «XIX. mendeko paper gaineko argazki koloreztatuak», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **62**, 11-31.
- , (2009): *Argazki koloreztatuak zaharberritzeko paperean erabiltzen diren zenbait kontserbazio-zaharberritze tratamenduren egokitasunaren azterketa*, doktoretza-tesia, <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Enara\\_Artetxe\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Enara_Artetxe_TESI.pdf)> (2017-01-17an kontsultatua).
- Astiz, I. eta Rubio, M. (2016): «Kulturgintza norabidearen atakan. Durangoko Azokako "Gogoetaren plazan" igarritako kultur estrategia bateratu baten premiaz eta ikusgarritasunaren erronkaz», *Jakin*, **213**, 11-44.
- Aumont, J. (2005): *Irudia*, EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Aurrekoetxea, N.; Iregi, I. eta Urrestarazu, I. (2016): «Okela Sormen Lantegia», *Jakin*, **215-216**, 143-149.
- Autore anitz (2011a): *Ekoizpen artistikoa eta artearen teoria feminista, eztabaida berriak II = Producción artística y teoría feminista del arte, nuevos debates II = Artistic production and the feminist theory of art, new debates II*, Gasteizko Udala.
- , (2011b): *Ekoizpen artistikoa eta artearen teoria feminista, eztabaida berriak III = Producción artística y teoría feminista del arte, nuevos debates III = Artistic production and the feminist theory of art, new debates III*, Gasteizko Udala.
- , (2012): *Ekoizpen artistikoa eta artearen teoria feminista, eztabaida berriak IV = Producción artística y teoría feminista del arte, nuevos debates IV = Artistic production and the feminist theory of art, new debates IV*, Gasteizko Udala.
- Barcenilla Garcia, H. (2014): *Komisariotza eta berdintze prozesuak. Arte eraginkor baten bila*, doktoretza-tesia, argitaratu gabea.
- , (2016): «Kultur politikak: paradigma aldaketa?», *Jakin*, **215-216**, 29-46.
- Balardi Eizmendi, E. (2015): «Hezkuntza graduako ikasleen autokontzeptu artistikoa / Education degree students' artistic self-concept», *AusArt. Journal for Research in Art*, 3. liburukia, 1. zk., 192-204, <<http://www.ehu.eus/ojs/index.php/ausart/article/view/14762/13151>> (2017-01-17an kontsultatua).
- Benjamin, W. (2015a): *Denbora, historia eta artearen inguruko testuak*, Sans Soleil, Gasteiz.
- , (2015b) *Literatur oharra*, Sans Soleil, Gasteiz.
- Belbel, M.J. (2003): *Ezagutza feministak eta itzulpen politikak*, Arteleku, Donostia.
- Boural, M. eta Perez, D. (1996): «Art Minimal», erakusketa, 1996ko otsailaren 2a - apirilaren 13a, Koldo Mitxelena Kulturunea, Donostia.
- Cillero, X. (1993): «Guggenheim museoaren argitzalak», *Jakin*, 109-130.

- Del Amo Castro, I.A. eta Letamendia Onzain, A. (2015): «Zarata da garaipena? Kapitalismo bizkortua eta bere soinu banda(k)», *AusArt. Journal for Research in Art*, 3. liburukia, 2. zk., 173-187, <<http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/15954/14182>> (2017-01-17an kontsultatua).
- Díez Paton, E. (2010): «Estiloaren adierazpena Bizkaiko eliz arkitekturan (1850-1930)», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **73**, 5-20.
- Etxarte, H. (2016): «Bi gogoeta politikatik arteari buruz», *Jakin*, **215-216**, 47-62.
- Etxebarria, M. (1993): «Ezjakintasunean oinarritutako kritikak», *Jakin*, **79**, 105-108.
- Echeverria Plazaola, J. (2008): «Jorge Oteizaren Quousque Tandem...!: irakurketa berriak», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **64**, 15-34.
- Etxepare Iginiz, L.; Sagarna Aranburu, M.; Lizundia Uranga, I. eta Uranga Santamaria, E.J. (2014): «Unité-ak eta hibridoak: 3 saiakera luzetarako bizitexeen gainean», *AusArt. Journal for Research in Art*, 2. liburukia, 1. zk., 102-114, <<http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/11899/11680>> (2017-01-17an kontsultatua).
- Faerna García-Bermejo, J. M. eta Gómez Cedillo, A. (2015): *Arteari buruzko oinarrizko kontzeptuak*, EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Fernandez Altuna, J.J. (2014): «Arte garaikidea eta krisialdiaren arteko harremanak: ekoizpenetik hedapenera», *RIEV*, **59.1**, 300-318.
- Garro Larrañaga, O. (2013): «Artearen eta subjektuaren eraikuntza: Nan Goldin-en aukera, intimitate-kontakizunak askatze-errepresentazio gisa», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **87**, 5-22.
- Gary, R. (1980): *La promesse de l'aube*, Gallimard, Paris (jatorrizkoa: 1960).
- Guasch Matutes, P. (1993): *Geometri irudigintza eta perspektibari buruzko ikasgaiak*, EHUren argitalpen zerbitzua.
- Herrera Díez, N. (2012): «Bilboko hiri-garapena sorkuntza artistikoan islaturik: 1975-2010», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **80**, 13-48.
- Herrera Fernández, E. eta Fernández Iñurritegi, L. (2014): *Prozesu sortzailea kartelen diseinu grafikoan*, EHUren argitalpen zerbitzua.
- Iturbide, A. (1990): «Eduardo Txillida euskal eskultorearen lanari hurbiltze apala», *Jakin*, **59**, 149-151.
- Jarauta, F. (ed.) (1992): *Artearen eta kulturaren arteko tentsioak mende amaieran*, Arteleku, Donostia.
- , (ed.) (1998): *Poetikak/Politikak: kritikak eta utopiak*, Arteleku, Donostia.
- Jiménez, J. (2010): *Artearen teoria*, EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Kandinsky, W. (1996): *Elementu piktorikoei ekarpena: izpiritualtasunaz artean. Puntua eta lerroa planoan*, Gaiak, Donostia.
- Kortadi, E. (1985): «Lizardiren omenez, Eduardo Txillidaren eskultura eta poesia», *Ondare*, **3**, 327-333, <<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/arte/03/03327333.pdf>> (2017-01-17an kontsultatua).
- Lajo Pérez, R. eta Surroca Coret, J. (2010): *Artearen lexikoa*, EHUren Argitalpen Zerbitzua.
- Landa, J. (1992): «Euskal kultura», *Jakin*, **73**, 51-55.
- Lasa Garikano, J.A. (1996): *Izadiaren arteak, arteari izaera*, doktoretza-tesia, <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jose\\_Angel\\_Lasa\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jose_Angel_Lasa_TESI.pdf)> (2017-01-17an kontsultatua).
- Lazkano Arrillaga, I.; Zubiaur Gorozika, N.E. eta Fernández de Arroyabe Olaortua, A. (2013): «Koldo Almandozen zinema: iradokizuna ardatz duen zinema libre», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **86**, 149-166.
- Lekerikabeaskoa Gaztañaga, A. eta Vivas Ziarrusta, I. (2016): «Sorkuntza artistiko, heziketa eta ikerketaren arteko gatazka. Eskulturaren baitako gogoeta batzuk goi-mailako arte-hezkuntzan erroturik», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **99**, 5-28.

- Lekerikabeaskoa Gaztañaga, A. (2009): «Artea eta industria-ekoizpena. Objektu artistikoa eta egunerokotasuna», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **70**, 5-24.
- Lujanbio, N. (2008): *Jorge Oteiza. Jenio hutsa*, Elkarlanean.
- Manterola, I. (2017): *Maite ditut maite. Transmisioa XX. mendeko Euskal Herriko artean*, Edo!
- Manterola, I. (2012): *Raemaekersen marrazkiak. Britaniar propaganda Espainian eta Euskal Herrian Lehen Mundu Gerran · Dibujos de Raemaekers: propaganda británica en España y el País Vasco durante la I Guerra Mundial*, EHuren Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Mantzisidor Uria, J. (2013): *Praktika kontzeptual eta performatiboak free improvisation eszenan*, doktoretza-tesia, <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jon\\_Mantzisidor\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jon_Mantzisidor_TESIA.pdf)> (2017-01-17an kontsultatua).
- , (2015): «Eskriba Eseria: Entzute aktiboa musika inprobisatu librean», *AusArt. Journal for Research in Art*, 3. liburukia, 2. zk., 45-57, <<http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/15932/14160>> (2017-01-17an kontsultatua).
- Marcellán Baraze, I. eta Gómez Pintado, A. (2014): «Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza EAEn: zer-nolako arte-hezkuntza ahalbidetzen dute testuliburuaren irudiek?», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **89**, 5-18.
- Melendez Arranz, J. (1996): *Irudi grafikoa, pintura materia eta material legez (bi pintura eragile)*, doktoretza-tesia, <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jesus\\_Melendez\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jesus_Melendez_TESI.pdf)> (2017-01-17an kontsultatua).
- Menna, F. (1999): *Arte modernoaren ildo analitikoak. Figurak eta ikonoak*, EHuren Argitalpen Zerbitzua.
- Miranda, O. (2016): *Irudikapen topokritikoak arte garaikidean : inguratzen gaituen guzti honi zentzua hartu eta ematearen arte epistemologiaz*, doktoretza-tesia, argitaratu gabea.
- Oñederra, I. (2015): *Emakumezko eta gizonezko heroiak eta euren ekintza heroikoak zenbait arte irudikapen garaikideetan: mota eta egoeren ezaugarria*, Doktorego-tesia, argitaratu gabea.
- Olmo Alonso, S. (2017): «Gailu artistikoak. Makina sozialak, teknologia bigunak eta arte-praktika garaikideak», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **100**, 31-35.
- Onandia, M. (2016): *Arte kritika eta flamingoak zeru berdean (2009-2015)*, Sans Soleil, Gasteiz.
- Oteiza, J. (2006): *Poesía. Edición crítica*, (edizio elebiduna euskara-gaztelania), Jorge Oteiza Fundazio-Museoa, Alzuza (Nafarroa).
- , (2007): *Quousque Tandem...! Edición Crítica de la obra de Jorge Oteiza* (edizio elebiduna euskara-gaztelania), Amador Vegaren edizioa, Jon Echeverria Plazaolaren laguntzarekin. Euskarazko itzulpena: Pello Zabaleta, Jorge Oteiza Fundazio-Museoa, Alzuza (Nafarroa).
- , (2013): *Aldaketen legea*, Jorge Oteiza Fundazio-Museoa, Alzuza (Nafarroa).
- Pedroso Conejero, G. eta Saenz de Santamaría, I. (2013): «Zarautz loraldi berrian», *AusArt. Journal for Research in Art*, 1. liburukia, 1. zk., 89-97, <<http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/10405/9739>> (2017-01-17an kontsultatua).
- Preciado, T. (1995): «Koloreen bilakaera: euskal kasua», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **13**, 3-21.
- Rodriguez, A. (2016): «Tabakalera», *Jakin*, **215-216**, 85-90.
- San Martín, J. (2013): *Begirada Urduria: manifestu eta testu futuristak*, Arteleku, Donostia.
- Tolstoi, L. (2013): *Zer da artea?*, Meettok, Donostia.
- Valdecantos, T. (2014): *Zer ote da arte garaikidea*, Elkar, Donostia.
- Vivas Ziarrusta, I. eta Lekerikabeaskoa Gaztañaga, A. (2010): «Itsas bazterreko espazio urbanoa eraikitzen: arkitektura, eskultura eta hiri-altzariak Donostiako badian», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **75**, 5-33.

- Warburg, A. (2014): *Sandro Botticelliren Venusen Jaiotza eta Udaberria*, Sans Soleil, Gasteiz. Web errekurtsua: Artelekuko Artxibo Digitala, <<http://artxibo.arteleku.net/>>.
- Zilbeti, M. (2016): *Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturalan*, UEU, Bilbo.
- Zulaika, J. (1993): «Gu gu Guggenheim. Eromenaren laudoriotan», *Jakin*, **77/78**, 131-149.
- , (1994): «Artearen amodioagatik: Guggenheim eta euskaldunak», *Jakin*, **82**, 99-122.
- Zurbano, A. (2007): *Artea artista eta traumaren arteko bitartekari gisa, psikoanalitik artera eginiko hurbilketak eta Louise Bourgeois-en eskultura*, doktoretza-tesia, <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Amaia\\_Zurbano\\_TESI.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Amaia_Zurbano_TESI.pdf)> (2017-01-17an kontsultatua).



